



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# **VITORIA-GASTEIZko HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA**

## **VITORIA-GASTEIZko HAPOa EGITEKO OINARRITZAT ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK**

2021eko EKAINA



## 1 AURREKARIAK.

Vitoria-Gasteizek hurrengo Foru-Dekretu eta Akordioen bidez onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPOa) du:

- *Diputatuen Kontseiluaren 135/2000 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, zeinek Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dosierra onesten duen. 2001eko otsailaren 19ko ALHAOn argitaratua (21.zk.).*
- *Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 930/2002 Foru Erabakia, abenduaren 27ko 135/2000 Foru Dekretuaren bidez etenda geratu zen eremuetan Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra betearazi behar dela adierazten duena, eta zuzendu beharreko alderdiak adierazten dituena. ALHAOn argitaratu zen, 135. zenbakian, 2002ko azaroaren 27an (asteazkena).*
- *143/2003 Foru Erabakia, zein azaroaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren erabakian - 930/2000 zk., Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra betetzeko beharrari buruzkoa- ezarritako baldintzak betetzeari onespena emateko baita. 2003ko martxoaren 31ko ALHAOn argitaratua (37.zk.).*
- *Diputatuen Kontseiluaren 1212/2005 Foru Erabakia, abenduaren 28koa, zeinek Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dosierra onesten duen, udalerriko menpeko toki erakundeetako bizitegietako lurzoruari dagokionez. 2006ko urtarrilaren 18ko ALHAOn argitaratua (7.zk.).*

Plana indarrean egon den urteetan, hainbat aldaketa puntual izapidetu dira, unean uneko premien arabera.

Vitoria-Gasteizko Udalak 2008. urtean "aurretiazko azterlanak" egitea erabaki zuen, plangintzaren egoera eta aldagai sozio-ekonomikoak identifikatzeko.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Alkatetzak, "2013ko urtarrilaren 25eko Dekretuaren" bidez (gai horri buruzko 2008ko urtarrilaren 18ko ebazpena aipatuz), Vitoria-Gasteizko HAPOren Berrikuspena idatzi aurreko azterlanak onartu zituen, baita Herritarren Partaidetzarako derrigorrezko Programa ere.

Ebazpen horretan, gainera, eta *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen* 90. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, inplikaturako administrazio-organo eta administrazio publiko guztien lankidetzeta eta informazioa eskatu zen, ahalik eta lanik eta emaitzarik onena lortzeko datu, txosten eta ekimen guztiak eskura izateko, eta, horrekin batera, Hiriko HAPO berria.

Herritarrek parte hartzeko prozesu baten ondoren, Udal Hirigintza Sailak HAPOren Berrikuspenaren Aurrerapena egiteko "informazioa eta aurretiazko proposamenen sintesia" izeneko azterlana aurkeztu zuen 2016an.



2017ko uztailean hasi ziren HAPO berria idazteko lanak. Legeriak ezarritako etapak betez, 2019ko martxoan amaitu zen, Aurrerapen Agiriarekin.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 31n, Aurrerapen Agiria jendaurrean jartzea erabaki zuen, bi hilabeteko epean, interesa duten pertsonak egoki iritzitako iradokizunak eta oharrak egin ditzaten.

2020ko otsailaren 17an (erabakia ALHAOn argitaratu zen eguna), Udalak adostutako Planaren Aurrerapenaren Partaidetza Publikoaren Prozesua hasi zen.

- Jendaurreko erakusketa ALHAOn, udal-ediktuen taulan eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten bi egunkaritan iragarri zen.
- Dokumentazioa (Aurrerapena + Hasierako Onespen Estrategikoa) udalaren webgunean egon da eta eskuragarri dago: [HAPO Aurrerapena](#)
- Aurrerapen Agiria ondoko udalei helarazi zitzaie, jakinaren gainean egon zitezen, eta Gasteizko udal-mugarteko administrazio-batzarrei, proposatutako egiturazko antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruzko txostena egin zezaten ere bai.
- Herritarrek parte hartzeko "Berrasmatu<sup>2</sup>" prozesua gauzatu zen. Prozesu horretan hainbat jarduera egin ziren Aurrerapen Agiria (erakusketa ibiltaria, azalpen-saioak) hurbiltzeko eta ezagutarazteko, eta herritarrek dokumentuaren edukiei buruz duten iritzia eztabaidatzeko eta jasotzeko ere bai (herritarren eztabaida-foroak eta tailer tematikoak).

Halaber, Aurrerapen Agiria eta Hasierako Agiri Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara bidali ziren, organo horrek Ingurumen-azterketa Estrategikoaren Irismen-agiria egin zezan, "Ingurumen-ebaluazioari buruzko, abenduaren 9ko, 21/2013 Legea"ren 17.2 artikulua agintzen duena.

Baina 2020ko martxoaren 14an, "463/202 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena" onartu ondoren, aldi baterako eten zen partaidetza-prozesua.

Alarma-egoera amaituta, Udalak parte-hartze publikoko prozesuarekin jarraitzen du 2020ko uztailearen 31ra arte, non prozesua amaitutzat ematen da.

Herritarrek parte hartzeko prozesuan bildutakoaz gain, ordura arte 48 iradokizun-idazki jaso ziren udal-erregistroan, eta 20 ekarpen-idazki posta elektronikoz.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurumen-ebaluazio Estrategikoari buruzko Irismen-dokumentua eta txosten sektorialak ere jaso dira.

Halaber, honako txosten hauek egin dira:

- "Vitoria-Gasteizko HAPO berrian genero-ikuspegia txertatzeko txostena", Planeamendu Zerbitzuak eta Berdintasun Zerbitzuak egindako Genero Eraginaren



Ebaluazioarekin lotuta, 2020an HAPOn Berrikuspenarekin batera egindako lanaren emaitza.

- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari lotutako "Irismen dokumentua", Planeamendu Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak egina.

## 2 PLAN OROKORRA EGITEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Parte-hartze publikoan bildutakoarekin eta jasotako agiri eta txostenak ikusita, hiriaren etorkizuneko hirigintza-antolamenduaren gidalerroak zehaztu behar dituzte, eta, jarraian, horien zehaztapen nagusiak labur azalduko dira.

### 2.1 Irizpide eta helburu orokorrak

Udalerraren etorkizuneko erabakiak zein erreferentzia-esparrutan begiratu eta orientatu behar diren oso erakunde desberdinek egindako lurralde-antolamenduko azterlan eta tresnetan islatzen da. **2030 Agendak eta Garapen Iraunkorreko Helburuek (GIH)**, besteak beste, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotako estrategien artean, bete beharreko gako orokorrak finkatzen dituzte, eta estrategia horiekin hiriaren konpromisoa irmoa da.

Puntu honetan, 2030 Agenda barruan hirigintza-plangintzako ekintza gehienak garatzen diren esparrua "Hiri eta Komunitate Jasangarriak" 11. GIH berriazko eremuarekin lotuta badago ere, agerian jarri behar da bai GIHak eta HAPOn zeharkako izaerakoak direla.

**Natura-ingurunea zaintzea eta babestea**, bai natura-balio handieneko elementuak, bai nekazaritza eta abeltzaintza-ekoizpeneko lurzoruak, funtsezko helburutzat hartu behar da lurzoru urbanizaezinaren konfigurazioan, eta Natura 2000 Sarea osatzen duten elementuen erregulaziora eta sektoreko araudira, hala nola, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSra, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSra, Hezeguneen LPSra, etab. egokitu behar da.

Aurreko faseetako azterketa-lanetik ondorioztatzen denez, indarrean dagoen Planak **bizitegi-ahalmena eta jarduera ekonomikoetarako gairik garrantzitsuenak** dituela uste da, etorkizuneko Plan Orokorraren erreferentzia-aldirako aurreikusitako etorkizuneko beharrei erantzuteko. Horregatik, egokituz jotzen da **eredua birbideratzea** lurzoru urbanizatugabea babestera eta hiri finkatuan hiri-jardueren aurreikuspenak **indartzea**, hiri trinkoaren helburua indartuz, lurzoru eta baliabideak optimizatzeke.

Ondorioz, **hiria berronertzeko eta eraikitako ondarea birgaitzeko** eragiketen bidez auzoak berreskuratzeak HAPOn berriaren bereizgarri izan behar du, aldi berean, haien gaitasuna indartuko duten industria-lurzoru etako ekintzekin konbinatu. Guztia hiri orekatu eta kohesionatu batera bideratuta.




Hirigintza-helburu horiek guztiek hiriaren klima-urrakortasuna kontuan hartzeraz bideratu behar dute, eta **klima-aldaketan ondorioei erantzuteko plangintza-irizpideak ezarriko dituzte.**

Beraz, HAPOak eutsi egingo die orain arte garatutako eta Aurrerapenean islatu diren eta lanak egituratu dituzten **ingurumen, ekonomia eta gizarte** arloko helburu estrategikoei, neurrizko lurralde-eredu eta ez hedagarri baten alde eginez.

Horrela, HAPOa idazteko oinarritzko irizpide diren eta 17 GIHeK eta 2030 Agendak ezarritako helburuekin bat datozen helburu estrategikoak honako hauek dira:

1. Hiri trinkoa, konplexua eta kohesionatua
2. Landa-ingurunea eta herriak bultzatu eta babestea
3. Natura, kultura eta paisaia ondareari balioa ematea
4. Lurralde iraunkorra eta energiari dagokionez eraginkorra
5. Lurraldearen oreka ekonomikoa
6. Vitoria-Gasteiz, guztiona eta guztiontzat (Aurreko guztien zeharkako helburu estrategikoa)





## 2.2 Irizpideak eta helburuak helburu estrategiko bakoitzaren arabera

Jarraian, HAPO berrirako oinarri izango diren irizpideak eta helburuak garatzen eta zehazten dira, eta irizpide eta helburu horiek aurrez azaldutako 6 helburu estrategikoetako bakoitzeko zehazten dira.

### OE1. Hiri trinkoa, konplexua eta kohesionatua.

#### Abiapuntua:

Indarrean dagoen HAPOak berau idazten ari zen unean hautemandako arazoei erantzuten die. Aurreikuspen horiek, urteak igaro ahala, neurritz gaindikoak izan dira egungo beharretarako, lurraldearen zati handi batean amaitu gabeko hiria erakusten dute, eta bizitegi eta ekoizpen-lurzoruaren eskaintza gehiegizkoa da, egungo zenbatespenen argitan. Nabarmentzekoa da indarrean dagoen HAPOan aurreikusitako etxebizitzaren edukiera Eusko Jaurlaritzak gaur egun aplikatutako etxebizitza-premiaren kalkuluetatik ondorioztatzen diren zenbatespenak baino handiagoa dela.

Auzo berrietan, Lakuan, Salburuan eta Zabalganan, biztanleak sartzeak, aldi berean, tentsioak sortzen ditu barrualdean (Ingurabide barrualdea), eta, ondorioz, tratatu beharreko eremu ugari daude. Gazteak kanpoaldeko auzoetara (Ingurabide kanpoalde) migratzeak, oraingoz hutsune handiekin daudenak, masa kritikoa galtzea eragin du hiriaren erdigunean, eta biztanleria adin-segmentuen arabera bildu da eremu ezberdinetan.

Biztanleak Ingurudidea "salto eginez" auzo berrietara lekualdatzeak bi eremuen arteko nolabaiteko deskonexioaren problematika eragin du, eta hiria hiri-jarrai gisa hartzea ahalbidetuko duten baketze-neurriak behar izan dira.

Biztanleria lurralde zabalago batean banatzeak erronkak eragiten ditu mugikortasunarekin (garraio publikoa eta ibilgailu pribatua erabiltzeko beharra), auzoko merkataritzarekin, zerbitzuen eta horniduren mantentze-lanekin eta beste hainbat alderdietan.

#### Helburuak:

Egoera honen aurrean, eta hautemandako joerak zuzentze aldera, irizpide berri batzuk ezartzea proposatzen da, hiria bere jarduera askotariko eta mistoekin bat etor dadin, bertako biztanleentzako bizitza irisgarria eta osasungarria sustatuz.

Horregatik, hiria trinkotzearen eta birdentsifikatzearen aldeko apustua egiten da, indarrean dagoen eta orain arte garatu ez diren HAPOan aurreikusitako sektore edo eremu berriak "kolonizatzea" saihestuz.



Helburuak, halaber, hiri finkatua indartzean finkatzen dira, hiri-eremu osasungarri, kultural eta sozialki orekatua lortzeko behar den masa kritikoa lortzeko, zerbitzu eraginkorrak eta herritarrentzat irisgarriak izango dituen.

Udalak auzorik zaharrenak aztertzen ditu, eta, horri esker, haien gabezia nagusiak antzeman eta konponbideak aurki daitezke, ondare eraikia eta urbanizatua birgaitzeko printzipioa oinarri hartuta, auzoak berroneratzeko. Auzoen birgaitzea eta berroneratzea sustatzeak biztanleriari eustea eta hiri konplexu eta kohesionatu baten helburuak betetzea errazten du.

Ingurabidearen mugakide diren eremuetan, hondar-espazioei edo gaur egun bete ez direnei balioa emateak Ingurabidearen bi aldean arteko harremana errazteko balio nahi du, egungo haustura josteko. Era berean, Ingurabidea zeharkatzen duten lotura-ardatzak indartu nahi dira, auzoen eta hiriaren eta irtenbide atseginoak dituzten industria guneen arteko harremana hobetuz.

Hiri trinkoaren alde egiteak mugikortasun jasangarria bultzatzen du, distantzia txikien mugimenduak, garraio publikoa eta mugikortasun modu alternatibo edo bigunak bultzatzea ahalbidetzen du. Aparkaleku intermodalak bultzatzea tranbia-sarearekin eta BELarekin, hirigunean beharrezkoak ez diren mugimenduak saihesteko.

Helburu horiek guztiek 3. GIH ("Osasuna eta Ongizatea"), 10. GIH ("Desberdintasunak Murriztea"), 13. GIH ("Klimaren aldeko Ekintza") eta, jakina, 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Iraunkorrak") xedeen isla dira.

#### Irizpideak eta proposamenak:

Helburu horiek lortzeko, HAPO berria idazteko kontuan hartu beharreko zenbait irizpide eta proposamen ezarri dira:

- Ingurabide kanpoaldeko auzoei eta garatu gabeko sektoreei dagokionez:
  - 1.1.** Hiriarekin lotuta dauden urbanizatu gabeko sektoreak desklasifikatzea (Salburua eta Zabalgana birpartzelatzearekin lotuta ez dauden sektoreak). Garapen horiek ez dietela irtenbiderik ematen hiriaren egungo arazoei uste da, eta sakabanaketan eta trinkotasunik ezean eragiten dute.

Salbuespenezko baldintzarik balego, irtenbide puntual alternatiboak aztertuko dira.
  - 1.2.** Olanan 14. sektorearen antolamendua berrikustea (eremua Udalarena da gehienbat) bizitegi-lurzoruak hiriaren mugakide izan daitezen, eta eremuaren zatirik handiena "Eratzun Berdea" indartzeko erabili dadin.
  - 1.3.** Zabalganako 5B sektorearen antolamendua berrikustea. Gehienbat udalak parte hartzen duen eremua izanik, horien %100 eskuratzeko falta diren eskubideak eskuratzeko edo trukatzeko errazteko aukera aztertuko da.



- 1.4.** Erabilera mistoak dituzten Lakuako ekipamendu hutsetako partzelak birkalifikatzea (bizitokiak, txandakako bizitokiak, sektore tertziariokoak), auzoaren trinkotasuna areagotzeko, eta beste eremu batzuetan hutsik dauden ekipamenduen partzelak aztertzea, hala nola Salburuan, Zabalganan edo Aretxabaleta-Gardelegin, hiriaren etorkizuneko eskaeratarako beharrezkoak ez badira.
- 1.5.** Hiriko aukera-espazioak berriz diseinatzea, beste eremu batzuetako etxebizitzak birkokatzeke, hiri-bilbea berrantolatu ahal izateko, eraldatutako lurzorua optimizatuz eta gune berdeak eta espazio libreak lortuz indargarria behar duten eremuetan.

- Hiri finkatuari dagokionez bereziki Ingurabide barrualdea:

- 1.6.** Planean sartuko dira "*Hiri berroneratzeko, eko-birgaitzeko eta Vitoria-Gasteizko auzoak bizkortzeko 2022-2040 Plan Nagusia*" (gaur egun egiten ari dena) eratorritako irizpideak, eta Udalak hiria birgaitzeko eta berroneratzeko jasotzen dituen gainerako estrategiak ere bai. Besteak beste, honako hauek sartuko dira planean:
- Eraikinen birgaitzea erraztuko duten mekanismoak.
  - Auzoak birgaitzeko eta leheneratzeko jasangarritasun-irizpideak sartzea.
  - Hiri-berroneratzeko eremuak, antolamendu-eremuak eta/edo kudeaketa aurreratu eta parte-hartzaileko eremuak mugatzea.
  - Hirigintzako araudia berrikustea, batez ere erabilerei dagokienez, erabileren nahastura bultzatzeko eta, ondorioz, hiriguneko jarduerak dinamizatzeko.

- Gainera, orokorrean proposatzen da:

- 1.7.** Etorkizuneko eraikuntza-jarduketak hiri-paisaiaren printzipioetatik abiatuta diseinatuko dira, eta hiriaren trinkotzea eta kohesioa bultzatzen duten eremuetan zehaztuko dira, gaur egun dauden bizitegi-hutsuneak betez, betiere egungo hiri-bilbearekin koherentea den diseinuarekin.
- 1.8.** Trenak hirian duen integrazioa aukera-espazio gisa definituko da, non hiri-trinkotzea eta kohesioa lehenetsiko diren. Hirigintza-antolamendua zehazteko, ahaleginak egin beharko dira espazio publikoak berroneratzeko, ekialde-mendebalde ardatzetan eta ipar-hego kaleetan mugikortasuna hobetzeko, hiri-azpiegitura berdeari jarraipena emanez eta erabileren hiri-nahasturari lehentasuna emanez.





- 1.9.** Ingurabideko-ardatzak parke lineal bihurtzea, hiri-bide berdeetarako antzinako trenbide-korridoreak imitatuz berreskuratzea. Parke linealak ez dira soilik hiri-parkearen erabilera tradizionalera mugatu behar; aitzitik, gizarte, hezkuntza, komunitate eta kultura-jarduerak ezartzea sustatuko da, Hiri Azpiegitura Berdearen Sistemaren ezarritako konektore-sarearekin bat etorritik.
- 1.10.** Etxebizitzaren tipologia-aniztasuna sustatzea, egungo gizarte-aniztasunari erantzuten dioten ereduak sartuz, hala nola etxebizitza komunitarioak, cohousinga, etxebizitza-kooperatibak eta abar.

## **OE2. Landa-ingurunea eta herriak bultzatu eta babestea**

### Abiapuntua:

Indarrean dagoen HAPOak hiri-lurzoru gisa mugatzen ditu Toki-Erakunde Txikiak, eta, kasuaren arabera, etxebizitza berrietarako eremuak aurreikusten ditu (hiri-lurzoruan zein lurzoru urbanizagarrian), eta horiek hazteko ahalmen handia eskaintzen du. Indarrean egon den urteetan, biztanleriari dagokionez herrien %85ek datu negatiboak izan dituzte, eta aurreikusitako ahalmenaren %0,4 baino ez da garatu.

Kontuan hartzen badugu hiri-lurzoruak berak %52ko hazkunde-ahalmena duela, eta eskaintzak izan duen garapen eskasa ikusita, argi eta garbi beteko lirateke eskaera hipotetikoak.

Gainera, esku hartu den kasuetan, irtenbideek hiri-profil nabarmena izan dute, eta kasu batzuetan landa-ingurunearen berezko eraikuntza eta hiri-tipologia desitxuratu egin da.

### Helburuak:

Egoera zuzentzeko, herrien ezaugarri tipologikoak mantentzea proposatzen da, hiri-izaera nabarmena duten irtenbide edo proposamenen aurrean, neurritz kanpoko eskaladun sustapen-eragiketen aurrean, kale-sekzioen aurrean, lursailen itxieren aurrean, etab., horietako batzuk lo-hiri bihurtzea saihestuz.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako herrien hiri-jarduera tradizionala sustatzea, erakargarritasuna errazteko, berezko ezaugarriak desitxuratu gabe.

Herrien kategoriak edo tipologiak ezartzea, beren balio tradizionalak hiriaren berezko presio edo moduen aurrean babesteko.

Herrien zerbitzu eta ekipamendu publikoen erabilgarritasuna optimizatzeko formulak bilatuko dira.

Herrien bizitegi-ahalmena horietako bakoitzerako aurreikus daitekeen eskarira egokituko da, unean uneko arazoaren arabera.



Atal honetan, helburuek xede hauek dituzte: 2. GIH ("Goserik ez"), 15. GIH ("Lehorreko Ekosistemen Bizitza"), 13. GIH ("Klimaren Aldeko Ekintza") eta 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Jasangarriak").

#### Irizpideak eta proposamenak:

**2.1.** Oro har, herrietan garatu gabeko lurzoru urbanizagarriko sektoreak desklasifikatzea, hiri-lurzoruetan hazkunde-ahalmen nahikoa dagoelako. Gainera, haien tamaina dela eta, ez dute laguntzen haien ezaugarri morfologikoak mantentzen.

Era berean, garatu gabeko egikaritze-unitateak berrikusiko dira.

Dagoeneko sailkatuta dagoen hiri-lurzoruaren barruan egun hutsik dauden lursailak betetzearen aldeko apustua egiten da, nahikoa baita herrietako hazkunde-begetatiboa xurgatzeko.

**2.2.** Aurrerapenean planteatutako Abetxukon eremu berri baten aukera baztertzea, Abetxuko Berria eta Abetxuko Zaharra arteko lurzoruetan.

**2.3.** Hirigintza-arau desberdinak definitzea parametroei dagokienez (gutxieneko lurzattia, distantziak edo atzeraemanguneak, itxiturak, etab.), honako hauen arabera:

- Herrien tipologia (bizitegia, mistoa eta landa).
- Herri bakoitzaren barruko egoera (ingurunea tradizional edo eraldatutako zonaldeak).

**2.4.** Nekazaritza eta abeltzaintza-jarduerari lotutako erabileren eta jardueren erregulazioari buruzko arauak berrikustea, herrietako biztanleriaren bizitza eta mantentzea sustatzeko.

### **OE3. Natura, kultura eta paisaia ondareari balioa ematea**

#### Abiapuntua:

Egungo HAPOn hedapen-ereduaren ondorioetako bat, hain zuzen ere, lurzoruaren sailkapena da, hiriaren inguruan eta udal-mugarteko 63 herrien zati handi batean hedapenak eginez. Planteamendu horrek lurzoru horien itxaropenak eraldatzea dakar, abeltzaintzako nekazaritza-ustiategiaren ikuspegitik.

Beste alde batetik, lurzoru urbanizaezinaren antolamendua onartu diren azken lurralde-araudietara egokitu behar da, administrazioen arteko koherentzia logiko bat lortze aldera, eta premia berrietara egokitu behar da.



Era berean, balio handieneko naturaguneen etengabeko araudia eta mugaketa, horietako batzuk figura propioekin, ez daude behar bezala jasota indarrean dagoen plangintzan.

Plangintza tradizionalak lurzorua espazio estanko gisa sailkatzea ezartzen zuen, hiriaren eta landaren artean hesi edo lerro bat ezarriz. Eredu hori berrikusteko, bi lurraldeen arteko ikuspegi integratzaileagoa sartu behar da. Zentzu honetan, “Eraztun Berdearen” papera, oraindik amaitu gabea, erabakigarria da lotura horretan.

Natura-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko erlazioa kultura-paisaien baloraziora ere eraman behar da; egoera hori ez da konpondu HAPOren katalogoarekin, eta katalogoa sakon eguneratu eta berrikusi beharko da.

#### Helburuak:

Etorkizuneko erronken aurrean funtsezkoa da ingurune fisikoa bizi-euskarri gisa eta ingurumenaren kalitatea hobetzeko euskarri gisa hartzea, batez ere lurraldearen oreka iraunkorraren eta klima-aldaketara egokitzearen aurrean.

HAPOak lurzoru urbanizaezina planifikatuko du, eta kategorien arabera erabileren arautegia ezarriko du, honako hauek kontuan hartuta: naturagune babestuek (Natura 2000 Sarea, Ramsar); azpiegitura berdea eta urdina; ekosistemen zerbitzuak; paisaia kulturalak; mugikortasuna; baliabideen kudeaketa jasagarria; materialen eta energiaren zirkulazioa; landa-habitata eta kokaguneen sistema.

Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan kontuan hartuko dira zerbitzu ekosistemikoak (habitata, euskarria, erregulazioa eta kulturalak), hirigintza-arauak hobeto definitzeko.

Lurraldea modu integralean ulertzea, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko harremana azpimarratuz, eta jaso eta aitortu beharko diren lotura-elementuen aurreikuspena ezarriz.

Oro har, naturaguneak kontserbatzeko eta hiriguneekin erlazionatzeko, azpiegitura berdea sustatuko da, honako hauen bidez:

- Ibai eta ur-inguruneak hobetzea.
- Landa eta hiri-habitataren integrazioa hobetzea.
- Mugikortasun-sarearen integrazioa hobetzea.

Ildo horretan, “Eraztun Berdea” ibai-ibilguak babestearekin, hiri-ingurunetik landa-eremurako trantsizioarekin, aisialdi-gunearekin eta hiriaren birikarekin lotutako azpiegitura bat baino gehiago da; hiriaren nortasunari berari lotutako kultura eta paisaia-balioak bereganatu dituen sinboloa da. Horiek sustatzea eta indartzea HAPO berriaren kontuan hartu beharreko helburua da.



Halaber, funtsezkotzat jotzen da ibilbide berdeak, oinezkoentzako ibilbideak eta bizikletentzako ibilbideak sartzea eta indartzea, hiriaren eta landa-ingurunearen arteko eta, bereziki, herriekiko harremanetarako tresna gisa.

Udal-katalogoa tresna garrantzitsua da Vitoria-Gasteizko kultura, paisaia, arkitektura eta hiri-balioak defendatzeko, eta, beraz, haren edukiak berrikusi eta eguneratuko dira, baita bizitegi, industria eta zuzkidura-eraikuntza, ibilbide berdeak, hiriko espazio bereziak, lurraldeko elementu txikiak eta abar ere.

Atal honen helburuek xede hauek hartzen dituzte beren gain: 6. GIH "Ur Garbia eta Saneamendua", 7. GIH "Energia Eskuragarria eta Ez Kutsagarria", 12. GIH "Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak", 15. GIH eta 11. GIH.

#### Irizpideak eta proposamenak:

- 3.1.** Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa egiteko, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta LAGetan jasotako egitura erreferentziatzat hartuko da, horiek eguneratu ondoren, eta azken dokumentu horren gainjarritako baldintzak sartuko dira, eta KBE eta HBBE espazioak babesteko beste figura batzuetatik eratorritakoak, Gasteizko Mendiak, Badaia eta Arrato mendilerroak, Jundizko muinoa eta konektibitateari buruz udalerriak egindako azterlanak ere bai.
- 3.2.** Sektore urbanizagarriak desklasifikatzeko jada deskribatutako proposamenek natura-ingurunearen zaintzan eta babesean eragiten dute, bai natura-balioa duten elementuetan, bai produkzio-balioa dutenetan, "Eratzun Berdean" hautemandako zenbait akats osatzen eta konpontzen laguntzen dute, herrien hirigintza-egoera lurralde-errealitatera egokitzen dute, eta abar.
- 3.3.** "Armentiako parkea" desklasifikatzea, Lurzoru Urbanizaezineko Espazio Libreen Sistema Orokor gisa jasoz.
- 3.4.** Hiriak "Eratzun Berdearekin" eta "Eratzun Berdeak" landa-ingurunearekin duten harremana jaso behar da, haren funtzioak arautzeko estrategia integral espezifiko bat idazteko beharra aztertuz. Gainjarritako baldintza gisa integratzea aztertuko da.
- 3.5.** "Nekazaritzako eratzuna" HAPOk lurzoru urbanizaezinerako jasotzen dituen zehaztapenen osagarri gisa arautzea; lurzoru urbanizaezinaren kategoria espezifikorik ez jasotzea hura arautzeko.  
  
Aramangelun eta Zadorra ibaiaren meandroan jarduera-eremu bat sortzea.
- 3.6.** Nekazaritza eta abeltzaintza-lurzorua kalitate biologikoan oinarrituta kategorizatzeo aukera aztertzea, lurzorua bizitzaren eta prozesu biologikoen euskarri gisa kontserbatzeko eta indartzeko.
- 3.7.** Lurzoru urbanizaezinean mugikortasun alternatiboa egituratzeko sarea sartzea, landa-bideak, bizikleta-bideak eta hiriko sarearekiko jarraitutasuna duten bide berdeak konbinatuz.



- 3.8. Udalerriko naturagune babestuen arteko lotura ekologikoa bermatuko duen konektore-sare bat sartzea, Arabako Lautadako hariztien arteko lotura bereziki azpimarratuz.
- 3.9. Urpean gera daitezkeen eremuetan erabilerak mugatzea, urbanizazio berriak saihestuz eta nekazaritza bezalako jarduera bateragarriak bultzatuz.
- 3.10. Akuiferoak kargatzeko eremuen babesa aztertzea, horien kalitateari eragin diezaioketen jarduerak ezartzea saihestuz, URArekin lankidetzan.

## **OE4. Lurralde iraunkorra eta energiari dagokionez eraginkorra.**

### Abiapuntua:

Gasteizek urteak daramatza lurraldearen ingurumen-kalitatea eta jasangarritasuna hobetzera bideratutako politiken alde egiten; hala eta guztiz ere, prozesu hori etengabeko lana da, etengabe eguneratu behar dena eta hobetzeko fronte berriak ireki behar dituena. Tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko agentziek ezarritako gidalerroak, Agenda 2030 eta GIHak klima-aldaketaren aurka eta ekonomia, gizarte eta ingurumen-jasangarritasunaren alde borrokatzeko esparru-helburu gisa hartuta, hiri eta komunitate jasangarrien eredu berri baten estrategiak hartzeko aterkia dira.

Labur esanda, udalerraren eta biztanleen osasunean askotariko eragina duten zeharkako alderdien multzoa da. Mugikortasunera bideratutako baliabideak, eraikinen eta udal-zerbitzuen energia-eskaria, uraren kontsumoa eta haren tratamendua, ingurumen-inpaktuak (zarata eta beste emisio batzuk, adibidez) plangintzatik eragin daitezkeen askotariko fronteen adibide dira.

### Helburuak:

Garatzen ari diren ekintzen ildotik, HAPO berrian jaso beharreko helburuetako bat izan behar da baliabideak eraginkortasunez kudeatzea, emisioen aldetik neutroa den eta energiaren eta elikaduraz auto-hornitu daitekeen hiria lortzeko.

Hiriko mugikortasuna berrantolatzea, ibilgailu pribatuen joan-etorriak murriztea planteatuz, garraio publikoa eta bitarteko alternatibo edo bigunak sustatuz.

Hiri mistoa eta konplexua, auzo bakoitzeko beharrak konpontzeko, hiri barruko mugimenduak saihestuz; eta trinkoagoa, desplazamenduen eraginkortasuna zailtzen duten eta energia-kontsumo handiagoa eragiten duten hedapen berriak saihestuz.



Orientazioagatik eta eguzkitzeagatik baldintza bioklimatikoak baliatzen dituzten eraikinen eraikuntza-sistemen erabilera sustatzea, baita energia-sistema eraginkorren erabilera ere, eta isolamendu eta klimatizazio-baldintza okerrenak dituzten eraikinen birgaikuntzan lan egitea.

Espazio publikoaren diseinua gutxieneko baliabide-kontsumo batetik hartu behar da kontuan, hala nola mantentze-prozesuak, energia-kontsumoa, etab.

Beraz, uraren kudeaketa integralerako, energia berriztagarrien ekoizpenerako, CO<sub>2</sub> atzitzeko gaitasuna handitzeko eta abarretarako ekintzak sustatzea, bai eta jasangarritasunaren eta energia eraginkorraren printzipioak lortzeko egokitzat jotzen den beste edozein estrategia ere.

Atal honetan jasotako helburuek eragina dute 3. GIH ("Osasuna eta Ongizatea"), 6. GIH ("Ur Garbia eta Saneamendua"), 7. GIH ("Energia Eskuragarria eta Ez Kutsagarria") eta 11. GIH (nagusiki) helburuetan.

#### Irizpideak eta proposamenak:

- 4.1.** Sektoreak desklasifikatzeko eta eraikitako ondarearen birgaitzea indartzeko proposamen deskribatuak funtsezko adierazleak dira mugikortasuna eta energia-baliabideak murrizteko. Hirigintzaren arloan aldaketak planifikatzeko orduan, haren eragin ekologikoa eta energetikoa kalkulatu eta kontuan hartuko da.
- 4.2.** Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planetik (MIEPP) eratorritako irizpideak integratzea.
- 4.3.** Eraikuntza eta urbanizazio-ordenantzetan diseinu eta eraikuntza-irizpideak txertatzea, bai eraikin berrietarako, bai espazio publikoetarako, ahalik eta energia-eraginkortasun handiena lortzera, klima-aldaketara arintzera eta egokitzera bideratuta, bai eta ondare eraikia birgaitzea bultzatuko duten neurriak arautzera ere, hedapen berrien proposamenen aurrean.
- 4.4.** Nekazaritza-erabilerak nekazaritzako elikagaien estrategiarekin bat etorritik arautzea, ahal den neurrian autohornikuntza errazteko edo ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko zuzeneko harremana errazteko hirian bertan.
- 4.5.** Lasarteko Legar-hobi azpiegitura hidraulikoa Lurzoru Urbanizaezineko Sistema Orokor gisa sartzea, dagoeneko balioetsi eta onartu baita haren egokitasuna.
- 4.6.** Energia berriztagarrien instalazioen ezarpena bultzatzea eta erraztea, araudi erraz eta eraginkor baten bidez. Araudi horrek lehentasuna emango dio energia berriztagarrien instalazioak espazio antropizatueta ezartzeari.

Ildo horretan, arreta berezia jarriko da araudiaren berrikuspenean, teilatuetan eta estalkietan eguzki-energia instalatzen laguntzeko.



- 4.7.** Energia nulua, ia nulua edo energia positiboa duten eraikinak sustatzea; horretarako, hirigintza-araudia berrikusiko da, horrelako eraikinak egiteko oztopo izan ez dadin.
- 4.8.** Estalki eta fatxada berdeak bultzatzea eta azpiegitura berdea hiri-bilbean mikroeskalan sar dadin bultzatzea, adibidez, barruko patioak erabiliz.
- 4.9.** Hiriko azpiegitura berdearen garapena sustatzen jarraitzea, honako ekintza hauekin: zuhaitzak landatzea, espazioak naturalizatzea, lurzorua iragazkortzea, drainatze jasangarriko sistemak instalatzea.
- 4.10.** Hirigintzan eragina duten Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (PACES) arintzeko eta egokitzeko neurrietatik eratorritako irizpideak integratzea, besteak beste, bero-uharte efektua arintzera bideratutakoak: zuhaitz autoktonoak landatzea, itzalak sortzea, zoladuraren iragazkortasuna, aire eta aireztapen-korronteekiko orientazioa, besteak beste, hauek dira kontuan hartu behar diren gakoak.
- Etxebizitzen tipologia eta horiek eraikitzeko erabilitako materialak ere aztertu behar dira aurreikusitako klima-egoera guztietan espero diren temperatura-igoeren arabera.
- 4.11.** Vitoria-Gasteizko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategian jasotako neurriak txertatzea, eta biodibertsitatearekin bat datorren eraikuntza-irizpideak sartzea ere bai.
- 4.12.** Materia organikoaren banakako konpostajea eta/edo komunitarioaren plangintza sartzea, lurzorua erreserbatuz eta lotutako azpiegitura hedatuz.
- 4.13.** Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak leheneratzen laguntzea, lurzoru berriak kontsumitu ordez. Horrelako lurzorueta biobitartekaritza-proiektuak arautzea eta horien ezarpena zabaltzea hiri-estrategia baten bidez.
- 4.14.** Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzial berria idazteko oinarri gisa, Araba Erdialdera hurbiltzean ezarritako irizpideak HAPO berrian sartzea.

## **OE5. Lurraldearen oreka ekonomikoa**

### Abiapuntua:

Lurraldearen gaineko jarduera ekonomikoak portaera desberdina izan du, baina elementu komun batekin jardueraren galera.

**Lehen sektoreak** bere pisuari eutsi dio azken urteotan, baina hainbat presio jasan ditu, bai lurzorua okupatzeagatik, bai sektore horretan diharduten langileen jarraitutasunik ezagatik.



**Hirugarren sektoreari** dagokionez, kontsumorako joera du merkataritza-gune handi eta ertaintan eta merkataritza elektronikorako joera du. Gainera, auzo berrien dentsitate txikia merkataritza txikirako behar den masa kritikorearen gabezia islatzen da.

Azkenik, **lurzoru-industrialak** mota askotariko agertokiak ditu kokatuta dagoen eremuaren arabera, baina azpimarratzekoa da aurreko hamarkadako krisiaren ondorioz ia poligono guztietan hutsuneak egon direla, eta horiek oraindik garatu gabe zeuden lursailei gehitu zaizkie. Egoera horrek garatutako poligono guztietan eskuragarri dagoen lurzoru industrialaren azalera handia (700 ha) duen mapa bat islatzen du.

Kontrastea egiten du poligonoetan erabilgarri dagoen lurzoru-ahalmenarekin eta indarrean dagoen HAPOan jasotzen diren lurzoru-erreserba garrantzitsuekin, aireportuaren eta Miñaoko Parke Teknologikoaren inguruneetan.

#### Helburuak:

**Lehen sektoreko** jardueraren garapenari dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintzako eta lehen eraldaketako jarduerekin zerikusia dutenak zaindu eta bultzatuko dira, horiek ezartzeko baldintzak malgutuz. Ezarpen horrek lurzoruaren baldintza naturalak eta paisaia-harremana errespetatu beharko ditu, eta sektorearen beharrak ere bai.

Herrietan eragin txikia duten eraldaketa-prozesuen bizikidetzat bultzatzea, eta, aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak harmonizatzea, kalitate handieneko hurbileko merkataritza indartuz.

Hirian integratutako **hirugarren sektoreko** jarduera funtsezko elementua da auzoetako gizarte-bizitzaren aberastasunean; horregatik, bizitegi-erabilerekin bateragarriak diren guztiak ezartzea sustatu behar da.

Ingurubidearen bi aldean arteko lotura-ardatzetan merkataritza-korridoreak garatzea, hiri-bilbearen jarraitutasuna indartuz auzoen arteko jostura-prozesu gisa.

**Industria-ahalmena** etorkizuneko HAPOaren indarraldirako aintzat hartutako aurreikuspenetara hobeto egokitutako eskarira egokitzea.

Industrialde zaharrenak biziberritzea eta leheneratzea, aukera-espazioak eraldatuz eta azpiegiturak berrituz, lurzoruaren okupazio berrien aurrean dauden baliabideak optimizatzeke formula gisa.

Atal honetako helburuak 8. GIH ("Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa"), 9. GIH ("Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura"), 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Jasagarriak") eta 12. GIH ("Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak") xedeetan txertatzen dira.

#### Irizpideak eta proposamenak:

- Lehen sektorea babestu, defendatu eta sustatzeko, honako hau proposatzen da:





**5.1.** Lurzoru urbanizaezinaren kategoriak berrantolatzea eta lurzoruaren kategoria horietan erabileren erregulazio berria ezartzea, sektorearen defentsa eta sustapena bultzatzeko.

- **Hirugarren sektoreko** jarduera erraztuko duten erabilerak nahastuko dituen hiria sortzeko helburuari laguntzeko, honako lan-ildo hauek ezarri dira:

**5.2.** Sektore tertziarioko eta merkataritzako ardatzak sortzea. Ingurabide barruko eta kanpoko auzoen arteko lotura sustatzen duten ardatzak lehenetsiko dira, eta horietan txikizkako merkataritza, auzo-merkataritza eta hurbiltasun-zerbitzu dibertsifikatuak sortzea sustatuko da.

**5.3.** Araudia berrikustea, baxu komertzialak berraktibatzeke eskakizunak malgutuz. Berrikuspen horretan, etxabe horien erabilera sustatuko da txikizkako merkataritarako, auzokoetarako eta hurbiltasuneko eta dibertsifikatutako zerbitzuetarako.

**5.4.** Azalera handien ezarpena mugatzea hiri kontsolidatuaren hiri-bilbean, hiriaren kanpoaldean jarduera saihestuz. Horretarako, besteak beste, hirugarren sektoreko erabilerarako lurzatieen tamaina berrikusiko da, garatu nahi den hurbileko merkataritza-eredura egokitzeko.

- Jarduera ekonomikoetarako **lurzoru-erreserbei dagokionez**:

Indarrean dagoen HAPOak jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserbak aurreikusten ditu Gasteizko Aireportuaren eta Arabako Parke Teknologikoaren inguruan. Erreserba horiek ez dira garatu, baina kudeaketa batzuk egin dituzte, ekoizpen-lurzoru berriak garatzeko. Eremu horietarako, honako irizpide hauek ezartzen dira:

**5.7.** Aireportuko lurzoru-erreserba murriztea. Lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabe gisa mantenduko dira VIAP proiektuari (Aurrerapeneko 2. aukera) dagozkion lurzoruak. Egungo erreserbaren gainerakoa desklasifikatuko da, hau da, %90 inguru murriztuko da.

**5.8.** Arabako Parke Teknologikoko lurzoru-erreserba murriztea. Aurrerapeneko 2. aukeran jasotako lurzoruak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa mantenduko dira. Egungo erreserbaren gainerakoa desklasifikatuko da, hau da, %70 inguru murriztuko da.

**5.9.** Mercedes enpresaren balizko handitze baterako Aurrerapenean jasotako lurzoru-erreserbari dagokionez, egungo kokapenaren aprobetxamenduak berrikusiko dira, erabilera handiagoa ahalbidetzeko. Plana indarrean dagoen bitartean lantegia handitzeko eta/edo berritzeko beharrak aztertuko dira. Plan hori bateragarri egingo da "Erastun Berdearen" konektibitate ekologikoaren balioak babestearekin.

**Poligono finkatuei dagokionez:**



- 5.10.** Eremuak mugatzea (antolamendukoak eta/edo egikaritzekoak), industrialde finkatu zaharrenak birsortzeko eta berrantolatzeko eragiketak ahalbidetzeko; aukera-espazioak, ardatz nagusiak, hutsak, eraikin zaharkituak, bizitegi-espazioekin eta "Eratzun Berdearekin" kontaktuan dauden ertzak eta abar birsortzeko eta berrantolatzea.
- 5.11.** Campo de los Palaciosen industriak beste poligono batzuetan birkokatze aukera aztertzea, eremuan erabilera atseginagoak ezartzeko aukera emanaz (bizitegi-tertzarioa-ekipamendua), kokatuta dauden ingurunearekin bat etorritik, "Eratzun Berdea" sendotzen saiatuz, bereziki Olarizuko parkearen mugakide den espazioa.

## **OE6. Vitoria-Gasteiz, guztiona eta guztiontzat.**

Aurreko ataletako irizpide eta helburuek herritarren bizi-kalitatea hobetzea ekarri behar dute, oro har, eguneroko bizitzako funtsezko alderdiei eragiten baitie.

Azken batean, plangintzaren irizpideak birbideratzea, hiriko dinamikak aberastuko dituzten alderdi global anitzagoak txertatuz. Trinkotasunak, jardueren konplexutasunak eta auzoak berritzeak eragina izango du zeharkako gaitetan, hala nola:

- Osasuna hobetzea.
  - Gure eguneroko bizitzan mugitzeko modua.
  - Etxebizitzaren kalitatea, bizigarritasun-baldintzengatik.
- Hiri inklusiboa eta generoagatik diskriminaziorik gabea.
  - Kalitatezko espazio publiko seguruak, irisgarriak eta atseginak.
  - Bizitza eta jarduera sozial eta komertziala duten kaleak
- Ingurumen-kalitatea hobetzea.
  - Inpaktu akustikoak murriztea.
  - Airearen kalitatea hobetzea.
  - Hiri-bilbean sartutako berdeguneak.
- Kultura-ondarearen balioa nabarmentzea, eraikitakoa nahiz inmateriala, bertako biztanleen nortasun-ikur gisa.
- Berdintasunezko eta bidezko hiria
  - Energia garbia, eskuragarria eta segurua
  - Auzoak berronertzea, desberdintasunen aurka borrokatzeko



Atal honetako helburuak helburu hauetan sartzen dira: 1. GIH "Pobrezia Desagerraraztea", 3. GIH "Osasuna eta Ongizatea", 5. GIH "Genero-berdintasuna", 10. GIH "Desberdintasunak Murriztea", 11. GIH "Hiri eta Komunitate Jasangarriak", 15. GIH "Lehorreko Ekosistemen Bizitza" eta 16. GH "Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak".

#### Irizpideak eta proposamenak:

- 6.1.** HAPO berria idaztean, kontuan hartuko dira "Vitoria-Gasteizko HAPO berria genero-ikuspegia txertatzeko txostenetik" eratorritako gogoetak.

Etorkizuneko hirigintza-analisietan genero-ikuspegia kontuan hartuko da, eta generoaren arabera eraginari buruzko txostenak txertatuko dira plangintzaren aldaketa eta garapen-proposamenetan.

- 6.2.** Udalerrian hirigintza-aldaketak zehaztu eta garatzerakoan, irisgarritasun unibertsaleko eta espazio publikoa hobetzeko irizpideak hartuko dira kontuan eta lehentasuna emango zaie, oinezkoen beharrak kontuan hartuta.

- 6.3.** Era berean, aukera-eremuak diseinatu, planifikatu eta berrantolatzeko orduan, eta etorkizuneko hirigintza-garapenei begira, mugikortasun jasangarria eta osasungarria bultzatzeko beharra kontuan hartuko da, eta behar bezala garatzeko loturak eta espazioak aurreikusiko dira.

- 6.4.** Planeamendua aldatzeko eta garatzeko proposamenetan, biztanle-sektore guztien beharrak hartuko dira kontuan, "Pertsona guztientzako hiri bat, 8-80 hiri bat" printzipioa bermatuz.

- 6.5.** Udalak bermatuko du gardentasun informatiboa eta herritarren parte-hartzea izatea hirigintza-prozesuetan eta plangintzaren aldaketetan.